


FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektua funtziona dezan, bi bazkide izango ditugu. Alde batetik, **Cáritas** elkartearekin egingo dugu lan. Cáritasek, gaur egun, bere karitate eta gizarte misioa gizarte ekintzen bidez betetzen du, justiziaren alde lan eginez. Boluntariotza elkarte bat da, eta haien helburua migratzaileak hartzea, babestea, sustatzea eta integratzea da. “Migratzaileak hartzen eta integratzen ditugu, guztiontzako eta guztion arteko harreman arinak eta aberasgarriak sortzeko.” Haiekin egingo dugu lan, **haiek** hartzen dituzten **immigranteak prestatuz eta lan-merkatuan sartuz**.



Cáritas gain, **Kirikiño egoitzarekin** eta **egun-zentroarekin** egingo dugu lan. Hauen bidez, **langileak prestatuko** ditugu. Kirikiño elkarterean hizketaldiak eman ahal ditugu gure zerbitzua azaltzeko, eta formatzen ari garen langileak praktikak egitera eramango ditugu, egoitzetan laguntzera. Zerbitzuak elkarbanatuz, **guztien onura** lortuko dugu, balibide desberdinak lortzen baititugu. Gainera, **zahar egoitzetan hizketaldiak** emango genituzke, **bezero posibleak erakartzeko**. Izan ere, zahar egoitzetara doazen agureak bakarrik denbora pasatzera doaz, eta gero haien etxeetara bueltatzen dira. Horregatik, noizean behin hara joatean bezeroak lortu genitzake.

Beraz, prozedura guztia Cáritas-ekin hasiko genuke. **Immigrante** batzuei **formazioa** eskaini ondoren, Kirikiño elkartera eramango genituzke gure langileak praktikak egiteko, eta azkenik zahar egoitzetara joango ginateke hara joaten diren **agureak erakartzeko**. Horrela, Kirikiñori lagunduko genioke zerbitzuak dohainik eskainiz, eta guk bezeroak lortzeko posibilitatea izango genuke.

Bazkideak izatea garrantzitsua da guretzat, bestela **enpresa ezin** delako **funtzionatu**. Alde batetik, langilerik gabe ezin izango genuke daukagun helburu garrantzitsu bat lortu, immigranteak gizarteratzearena. Gainera, laguntzarik gabe hasieran ezin izango genuke etekinik atera. Horregatik uste dugu beharrezkoak direla guretzat bazkide hauek.